

## La Lista de Schindler

SCHINDLER'S LIST. USA 1993: *Zuzendaria*: STEVEN SPIELBERG. *Gidoia*: STEVEN ZAILLAN. *Musika*: JOHN WILLIAMS. *Argazkia*: JANUS KAMINSKI. *Aktore nagusiak*: LIAM NEESON, BEN KINGSLEY, RALPH FIENNES.

Ideia nazionalsozialistak poliki berrindartzen ari diren garai honetan, Spielbergek aurretik eginiko filmografiarekin zerikusia ez duen filmea egin du. Jaiotzez judua, bere familiak ondo ezagutu zuen II. mundu gerratean gertatutako sarraskia. Bere hitzetan, filme honekin bere guraso eta aiton-amonei omenaldia egin nahi die.

21 miloi dolar aurrekontua dituen filme honek, Oscar Schindler enpresaria du protagonista nagusi. Schindlerrek 1.000 judu baino gehiago txikiziotik salbatu zituen. Baina filmean Schindler ez da heroi altruista gisa agertzen, bere izakera maltzurra, oportunistak, emakumezalea ere ageri da. Beraz, ez da guztiz heroi, ezta ere nazi tipiko bat; gerra bere interesetarako erabiltzen duen enpresaria da gehienbat era guzti hau filmean argi zehaztua geratzen da; ongia fabrikako kontablea den Itzhak Sternek

(Ben Kingsley) sinbolizatzen du. Stern 1.000 judu baino gehiago salbatuko zituen lista idazten lagundu zion pertsona dugu. Gaizkiari, berriz, Plazow kontzentrazio kanpoko buru zen Amon Goeth komandanteak ematen dio itxura. Pertsonaia honek bere izakera guztiz hotz eta sadikoaz egiten dituenekin ikuslea zinemako eserlekuan zirrara batez astintzea lortzen du behin baino gehiagotan, filmea aurrera dihoan heinean.

Bi pertsonaia antagonista hauen tartean egoteak Schindlerren baitan barne borroka sortzen du. Amon Goethen juduak animalia bezala tratatzen dituen bitartean, Sternek haiek sentimenduak dituzten pertsonak direla erakusten du.

Filmea txuri-beltzean izateak errealismoa eta dramatismoa gehitzen dio argumentuari, biolinak nagusi dituen John Williamsen

musika ere horretarako konplemendu aproposa dugula. Lian Neesen aktoreak pertsonaia behar zuen sinesgarritasunaz tratatu du, eta Ben Kingsley eta Ralph Fiennes aktoreen lana ere giltzarri izan dira filmeari osotasuna ematerakoan.

Amaiaren denboraren hurreratze bat gertatzen da; filmearen protagonistak eta benetazko pertsonaiak elkarrekin Schindlerren hilobian elkartzen dira. Aken imakina hauek kolorezkoak dira, denbora pasa dela argi zehazteko.

Bukaera sinboliko honek "lehena", "oraina" eta "geroa" sinbolizatzen ditu. Schindlerri esker

salbatu ziren pertsona guzti hauek "orain" eta "gero" bat izango dute, eta horiek sorturiko generazioek ez dute Schindler ahaztuko. Schindler, altruista ala oportunistak izan zen. Ez dakigu garbi. Argi dagoena da 1.000 juduk baino gehiagok bizitzeko eta bere hazia munduan zehar eriteko posibilitatea izan dutela.

Filme honi esker Spielbergek orain arte ukatu dizkioten "Oscar" preziatuak lortu ditu, baina ez hori bakarrik, gertatu zen saraskia guztioi gogorarazi. Dena den, oso urrutira joan gabe, mentu honetan ere horrelakoren bat ez ote da ari gertatzen...?

*Nerea M. Aranda*